

**ZENBAT BURU**  
Andoni Segundo

**ERREPORTAJEA**  
Guraso izateko  
erabakia

**GEHIGARRIA**  
Kale zulotik  
baserrira

**UDALETXETIK**  
1999ko Udal  
aurrekontuak eta  
martxoaren 25e1(o  
plenoa

**KHROILA**  
Iñurrategi anaien  
ikusentzunezkoa

**KULTURA**  
Ongarrik eta  
Haizeak  
"Zinea eta  
emakumea" zikloa  
antolatu dute

# BARRREN

1999ko apiribren 9a  
VII. urtea - 273. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



**Gulas izateko  
erabaki**

"Ume gabeko etxea, lore gabeko lorontzia"

ZO. OCO

gY



foto

azkue

San Bartolome, 26  
Tel. 943 74 08 48

spAq

Zure Yalficzrizeio  
orolyarria gelirsaA

4,20.000

4,20.000



**6M TAILATIK**







**12 TAILARA**





San Frantzisko, 44 • Tel: 943 74 45 83



ANDONI SEGUNDO

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru ankeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

# Nonahi zaudela ere...

**K**aixo Jesus! BARRENeK zurekin beriz hitz egiteko ematen didan aukera aprobetxatu nahi nuke, nolabait oraindik gure artean jarraitzen baituzu. Hainbeste gauza kontatzeko izan eta ez dakit nondik hasi, baina azken bolada honetan HIESaren inguruan gertatzen ari direnak azalduko dizkizut.

Gogoratzen al zara honetaz hitz egiten genuenean esaten zenuenarekin? Ba, ez pentsa egoera asko aldatu denik! Alde batetik, medikuntzan egiten ari diren aurrerapenei esker baikorrak izan behar dugu. Gaur egun, tratamendu eta botika berriekin seropositiboan bizi itxaropena eta kalitatea neurri handi batean nabarmen hobetu dira, zorionez, tuneletik irteteko unea gertuago balego bezala.

Dena dela, beste alde batetik, biok ondo dakigunez, medikuntzaren aurpegi iluna behin eta berriro agertzen zaigu. Ezetz asmatu zein den *Osakidetza*ren azken burutazioa? Ez da erraza igartzea, ez, seropositiboan erregistro bat martxan jarri nahi baitute. Bertan izen-abizenak, eta hainbat datu pertsonal agertzen dira, giza-eskubideak, anonimatoa, alegia, errespetatu gabe. Bai Jesus, kontrolpean gaituztela garbi zegoen, baina hemendik aurrera garbiago.

Hala ere, hori ez da dena. Sinestea zaila bada ere, Euskal Herriko ospital bateko agin-

tariak emakume seropositiboari abortatzeko eskubidea debekatzen diete. Honekin batera tronpen lotura ez zaie egiten, nahiz eta onartu gero eta ume gutxiago jaiotzen dela VIHrekin, %3 hain zuzen ere. Horretaz gain, VIHDunek organoen transplante eskubidea izateko, gutxienez bi urte gehiago itxaron beharko dutela kontuan hartzen badugu, argi dago *Osakidetza* noraezean dabilela.

Eta beste berri hau? Ez nuke inoren praktetan sartu nahi, baina Bartzelonako artzapezpikuak esan duena kontatu behar dizut.

Erne egon: "Prebentziorik onena abstinentzia eta kutsatu gabeko bikotearekiko fideltasuna da". Ofizialki ere, pretserbati-boaren kontrako jarrera mantentzen dute. Komentarik gabe. Horretan ere adituak ote dira? Baina, nik deklarazio horren inguruan sortu zen leloa aldarrikatzen jarraituko dut: "Esanak esan, jar-

ezazu".

Lekurik gabe gelditzen ari naizenez, beste gai batzuk hurrengo baterako laga beharko ditugu, esate baterako pasibotasuna, prebentzio hitzaren esanahia... edo bestela, Sallobenterako pasealditxoetan berba egiteari ekingo diogu gure pelikula ospetsuaren gidoia behin eta berriro aldatzen dugun bitartean.

Besterik gabe, nonahi zaudela ere, besarkada bat eta hurrengora arte.

**"Euskal Herriko ospital bateko agintariak emakume seropositiboari abortatzeko eskubidea debekatzen diete, nahiz eta onartu gero eta ume gutxiago jaiotzen dela VIHrekin"**

## Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGO1BAR  
s' 943 74 41 12  
Publizitatea:  
943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agi rrealaldegi, Asier Orbea

PLIBLIDTATEA Maitane Cid

MAKETATZAILEA Bea Ansoa

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Altzol Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnailz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loliola, Ongarri Zine Kluba,

Inigo Otarto, Jon Peti Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelat,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

AZALEKO ESALDIA Gotzon Garateren liburutik

BANAKETA ARD1JRADUNA Imanol Larrafiaga

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 afe

LEGE GORDAILLIA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
hurlaritzako  
Kidtura Sailak eta  
Foru Aldundiak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



*fundazioa  
fundacirin*

## 1DANOBAT

**SIS GO ITI**  
GRUPO DANOBAT

## ISEskal lehergalluak Kurdistango zeruan

■arai hobeak datoz, edo, espejismo **k-J** hutsa ote da? Exiliatu kurdoak Gasteizen biltzekoak dira. Ezinezkoa! "Zer gertatuko da gure diru etekinarekin?" diote enpresa jabeek. "Bost axola guri Kurdistan eta bere kulturaren genozidioak irabaziek behera egiten badute". Hori da garbi hitz egitea hori, ez Ybarra, BBV banku multinazionaleko presidentek bezala; hura "bakea eta gizartearen zein berau osatzen duten gizabanako bakoitzaren zorientasunaren alde" omen dabil.

Ofizinak errausten dizkiguten "kale-borrokaflari" horiek guztiak giltzaperatu beharra dagoela, erredios! Hain dira gaiztoak eta biolentoak. Zer nolako sofrikarioa horien kontura... gure poltsikoek. Turkia aldera bidaltzen ditugun armak kurdoak txikitzeko erabiltzen badituzte, beste aldera begira dezakegu, izan ere, zer min emango digu hain urruti geratzen den ezerk. Besterik ezean telebista eta prentsa hor ditugu, zaborraren zaborraz, kontu hauek guztiak ezkutatzeko.

Giza eskubideak, lana, kultura ezberdinak, elkartasuna, gastu sozialak,... horiek enbarazu egiten diote negoziari. Gogoan al duzue Ardanzak eta enpresa gizon talde batek Indonesiara egindako bidaiak? Han Ardanzak, odolez zikindutako diktadore hiltzaileari, Suhartori, luzatu zion bostekoa. Ez zen izan demokraziaz hitz egiteko, ez eta Timor Orientalean burututako okupazioaz eztabaidatzeko ere. Hango esplotazioaz eta miseriari baliaturik dirua ateratzeko izan zen.

Krimen organizatua edo gizalciekin zein naturarekin salerosketan elegante-elegante jantzita dabilzan trajedunek ondo ezagutzen dute euren etsaia. Eta guk? Esplotazioaren, langabeziaren, etxebizitzaren espekulazioaren, prekaritatearen eta abarren artean bizimodua daramagunok, ezagutzen ote dugu gurea?

Beste horiek **BAKEA** nahi omen dute. Joan eta esaeizu bakeak berdintasunean oinarrituta beharko duela, gizabanako zein herri bezala libre izateko eskubidea beharko duela; esaeizu

Iapurtutakoa bueltatu beharko dutela eta orduan tankeak ikusiko dituzu ka-lean.

Ez joan jauregiatara justizia eske. Zakur artera bidaliko zaituzte.

Elgoibarko Gazte Asanblada

## AEK Eatiskaltegiak eta Korrikak askerrak elgoinartarrei

**10** ederatzi egunetan euskararen al-  
r>> deko konpromisoa erakutsi duen Korrika honek, elgoibartarren aldetik herrira heltzean izan zuen harrera ona, eskertu nahi dugu bai antxintxika egiten eta bai animatuz.

Era berean, ekitaldi kulturalera agertu ziren guztiak, kilometroak erosi zituzten ikastetxeak, elkarteak, sindikatua etab. eskertu nahi ditugu. Baita dendak, tabernak eta enpresak ere, ahaztu gabe kuestazioa egiten lagundu zuten ikastetxeetako gazteak. Halaber, eskerrik beroenak 'Etxepe' lantegiari herri mailan egin zitzaion omenaldian laguntza eskaini ziguten Udaleko txistulariei, Haritz Dantzari Taldekoei eta kaleak girotzen jardun zuten Trikiti Eskolakoei. Hauetaz gain, gure esker ona Udaltzaingoari eta AEK Euskaltegiko ikasle, laguntzaile eta parte hartzaile guztioi, azken finean elkarlanean jarduteak posible egin baitu 11. Korrikaren antolakuntza.

Bukatzeo AEK Euskaltegiak gogorarazi nahi dizue euskararen aldeko lasterketa ez dela amaitu. Gure hizkuntzaren geroa ziurtatzeko denok elkarlanean antxintxika jarraitzea ezinbestekoa da. Mila esker guztioi.

AEK Euskaltegia

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo idenifikatuta egon behar dute argiarratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jarri: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

## KEXAK

• Emakume bat etorri da honako kexarekin: "herritar askok zaborra kontenedoretan lagatzerakoan, kontenedore barruan sartu beharrean, zabor poltsak tapa gainean lagatzeko ohitura penagarria dauka. Askotan kontenedoreak hutsik egoten dira eta zaborra barruan sartzea nahi dugunok ezin izaten dugu taparik ireki. Zabor poltsak kontenedore kanpoan ikustea ez da batere itxurusoa eta are gutxiago higienikoa".



• Emakume bat etorri zaigu honako kexa hau azaldu nahi duela-eta: "Elizako arkupeetako lurra eta paretak oso zikinak daude. Horren ardura gutxi erakutsi duten horiei gogoratu nahi nieke denonak diren gauzekin errespetu gehiago erakutsi behar dela. Are gehiago paretak orain dela gutxi margotu zituztela jakinik".

## TXALOAK

• Herriko gazte batek Morkaiko Mendizale Elkarteko txalotu nahi ditu martxoaren 30ean Herriko Antzokian Iñurrategi anaien ikusentzunezkoa eskaini zutelako. "Benetan ikusgarria izan zen montajea eta aurrerantzean ere Morkaikokoek horrelako ikuskizunak antolatu beharko lituzketela uste dut".

## ESAN?



### Iñasio Garmendia

Elgoibarko Izarrako presidelea

Martxoaren 29an izan zen Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen Urteko Bazkideen Batzar Orokorra. Urtero bezala, Elkarteko arduradunak eta teknikariak izan ziren 98ko balantzea eain eta 99ko asmoak zein diren azaltzeko zutenak. Guk Elkarteko presidente den Iñasio Garmendiari deitu diogu batzarrean aipatutako garrantzitsuenaz azal diezagun.

- Aurten ere jende gutxi joan omen da batzarrera.
- Bai, Batzar Orokorra duen alderdirik tristeena da. Elkarteak 640 bazkide inguru ditu eta sekula ez gara 25 lagun baino gehiago elkartzen. Halere, ELGOIBARKO IZARRA bazkideena da eta urteroko zita hau mantendu egin behar dela uste dugu.
- Zer azpimarratuko zenuke 98an egindakotik?
- Zaila da hain espazio txikian urtebeteko lanaren entresaka egitea, baina zerbait azpimarratzekotan GUREAN BAIren lana nabarmenduko nuke. Hiru urteko lehen fasea amaitu dugu urtarrilean eta helburu politikak lortu ditugula uste dut. Bestalde, Atxutxiamai kan sartu diren 23 begirale berrien ilusioa eta lanerako gogoia ere hor dago; Kultura taldekoak ere fin aritu dira Kultur Errota egitasmo interesgarriekin; eta amaitzeko, beste bost erakunderekin batera gauzatu genuen BAI EUSKARARI kanpaina ere benetan positiboa izan zela esango nuke.
- 99rako, berriz, proiektu berriak daukazuela jakin dugu.
- Bai, hala da. Helduen euskalduntzea-alfabetatzea indartzeko proiektua idatzi genuen euskaltegiekin elkarlanean, eta Udalak bere oniritzia eta babesa eman berri dio proiektuari. IraiLeanedo jarriko dugu martxan proiektu hau. Bigarren proiektua, berriz, TOLETXE Kafe Antzokia dugu. Aspalditik ari gara horrelako ideia bat martxan jarri nahian eta baliteke San Bartolome-atarako TOLETXE martxan izatea.
- Eta diru aldetik, zein da Elkartearen egoera?
- Ezin gara kexatu, aurrekontuak txukun xamar betetzen baititugu. Halere, gure erronka diru sarrera propioak sortzea da. Izan ere, dirulaguntzetatik aurrekontuaren %55a betetzen dugu eta dependetzia handiegia da. Dirulaguntzen atalean Udalaren laguntza azpimarratu behar dugu, Euskara Batzordearen konfiantza osoa daukagu eta honek asko errazten dizkigu gauzak.

oto

2 4.000

## AnchIstegui s.a.

**ZERAMIKA**

---

<p>Erakuskela eta bulegoa: Antonio Arrillaga, 6-8 behea 83 P. K. - 20870 ELGOIBAR Tel: 943 74 33 44 - 74 06 92 Faxa: 943 74 37 11</p>	<p>Billegia: Olaso industrialdea Olasope, 5 20870 - ELGOIBAR Tel: 943 74 20 38 • 74 23 71</p>
---	---

# gofi

Larunbat  
arratsaldeetan irekita!

- Hautsven-izako cur'apck
- a),zteixoenizako twora

Giza eskubideen enparantza, 1 • 943 74 46 53



# Hatirra

## bizitza aldatzon ducn erabakia

### aurraren zain

*Euskal Herriak Europako jaiotze tasarik bajuenetakoa duela gauza jakina da. Hiru seme-alaba baino gehiagoko familiak iraganeko kontua dira. Azkenaldian, ordea, Elgoibarko kaleetatik ibiltzea nahikoa da gauzak zertxobait aldatzen ari direla ohartzeko. Aldaketa honen arrazoiak aztertzerakoan, bada haurren jaiotza eta ezkontzen ugaritzea moda kontua dela dioenik, izugarritzko garrantzia baitute modek gaur egungo gizartean. Zenbait adituren iritziz, oster, bizi dugun egoera ekonomiko eta sozial itxaropentsuaren ondorioz, ausartzen dira bikoteak haurrak izatera. Gai honen inguruan herritarren iritzia jasotzeko hiru bikote ekarri ditugu guregana. Nuria Bergua eta Iñigo Astigarraga lehen haurraren zain daude. Ramses Lahoz-ek eta Ainhoa Idarragak alabatxoak dute eta Begoña Elizondok eta Andres Saenzek adopzioan hartutako alaba dute. Hiru esperientzia hauen bidez haurrak izaterakoan eragina duten faktoreei buruz galdetu diegu eta aita eta ama izateak bizimodua zenbateraino aldatzen duen jakin nahi izan dugu.*

Nuria Bergua eta Iñigo Astigarraga 30 urteko senar-emazte elgoibartarrak dira eta pare bat hilabete barru guraso izatekotan daude. Izan ere, Nuria 7 hilabetekoa dago eta biek ilusio handiz itxaroten daude lehenengo haurra izango dena. Nuriak aipatu digunez, betidanik eduki zuen argi ama izatea nahi zuela, "ama izateari garrantzi handia ematen nion, baina beste lehentasun batzuei ere badaoz, esaterako lana. Ez zakagun prisa eta lasai hartu gendun. Haur bat izateko erabakia,

momentua heldu dela konturatzeko zerraz hartzen dozu. Daramazun bizimodua aldatzen dixe, ez zera lehen beste irtezen... Gure kasuan pentsatu eta in izan zan". Biek egiten dute lan eta bikoteen egoera ekonomikoak baduela garrantzia uste dute, "ezkondu, pisu berri batian sartu

edo haurrak izaterakuan, etorkizunian pentsatzia komeni da. Beste batzuek ordea, ikuspuntu ezberdina dake eta haurrak izateko momentu onik edo txarrik ez daukala esaten dabe. Hala pentsatzen dugunoi egoistak generala esaten digute, eta pixkat estuo bizi bihar bada ere, ume bat izatia garrantzitsua dala esaten dabe. Dana dala, haur bat hezi

eta haztia esfortzu eta gastu handia da. Guk adibidez, lana eta bikotian arteko harremana finkatu arte itxaron gendun".

### Esperientzia berria

Haurdun dagoen lehen aldia dela kontuan harturik, zer moduzko esperientzia den galdetu diegu Nuriari. "Hasieran arazo batzuk zirelaeta, nahiko momentu txarrik pasau nitxun, baina gero eta hobeto nao. Haurdun dauden lagunak ditxut eta oso

haurdunaldi erosuak izan zitxuztela ikustian, nire haurdunaldixaren hasiera kaxkar horrek morala baj auarazi zian. Haurra izateko ordua hurbildu ahala, gauzak argixao ikusten diaz, umia sabelian mugitzen dala nabari dozu, ekografixetan ikusteko aukeria dakazu eta momentua ailegatziar dauala jakitiak ilusioa ematen dau". Antojo famatuei dagokionez, Nuriak ez du desio



berezirik izan, bai ordea, usaimenarekin zerrikusia duen arazo bitxia, "hasieran ezin nitxuan usai batzuk jasan, batez ere usain fuertiak: koloniek, garbiketako produktuek, tabako usainak eta holakuek izugarritzko iguina ematen ziaten. Inoiz ez dut holako arazorik izan. Itxura danez usaimena asko handitzen da haurdunaldian".

## 21 4iljeido alaga

Ainhoa Idarraga eta Ramses Lahoz duela 4 urte ezkondu ziren. Miren izeneko alabatxoa izan zutenean ez zuten pentsatzen bizitza horrenbeste aldatuko zitzaienik, "Miren izan aurreko bizimodua asko aldatu zaigun arren, oso gustora gaude hartu genuen erabakiarekin. Gurasoek ere zeresan handia izan zuten, lehen ilobatxoa zen beraientzat eta haur bat ekar genezala eskatu baino, erregutu egiten ziguten. Ez dago alabatxoa egunetik egunera nola hasten den ikustea baino sentsazio bereziagorik. 21 hilabete bete berriak ditu eta urte bat bete zuenetik, egunero gauza berriak ikasten ditu, hitz berriren bat, lehen pausoak ematen... guraso bantentzat sorpresa zoragarriak dira". Bestalde, independentzia galtzen dela aipatu digute, "edozer egin aurretik Mirenengan pentsatu behar dugu. Afari batera joateko adibidez, noren ardurapean utzi dezakegun erabaki behar dugu, edo bidaiarik



*Ainhoalkrrea gak eta Ramses Lahozek egunetik egunera Mirēn.uola hazten den ikusten dute.*

egitea pentsatzen badugu, lekua ongi aukeratzeak berebiziko garrantzia du". Ramsezen iritziz, "inork ez gaitu eginbehar hauek egitera bultzatu, guk hartu dugu erabakia

eta oso pozik egiten dugu Mirenen zerikusia duen edozer".

Haur gutxi zergatik jaiotzen diren galdetu diegunean, ohiturek garrantzi handia izan dezaketela azpimarratu digute, "bikote gazteek gero eta beranduago ezkontzeko ohitura dute. Ezkon-bizitza ahalik eta gehien aprobetxatu nahi dute eta haurrak izatea gerorako uzten dute. Gure gurasoen garaian haurrak izatea gauza naturala zen. Gaur egun, berriz, haurrak izatea planifikatu egiten den erabakia da gehienetan eta egoerak agintzen duenean ausartzen dira bikoteak haurrak mundura ekartzera. Gurasoen etxean luzaroan bizitzeko ohitura dago eta intimitaterik gabe zailagoa da familia osatzea. Euskal Herrian 27 urte-

rekin gurasoen etxean bizitzea ez da arraroa. Ohitura baino, behar gorria dela esan daiteke, bizimodua eta etxebizitzak garestiak baitira".

## Wopzioa, 4esle atdera 4a1

Begoña Elizondo eta Andres Saenzek 12 urteko Amaia izeneko alaba dute, baina beraien kasua aurreko biek alderatuz gero, berezia da. Izan ere, duela 13 urte neskatxa bat adoptatu zuten, Amaia. Haurrik izaten ez zutelako kezkatu, haur bat izateko desioa sortu zitzaion Begoñari, "betidanik egon naiz haurrez inguratua eta azkeneko trauma bat zen seme edo alabarik ez izatea. Beraz, adopzioaren bidea probatzea erabaki genuen. Gipuzkoako Diputazioan eman genuen izena eta guraso egokiak ote ginen jakiteko proba mordo bat egin zizkiguten. Psikologoek galdera eta test ugari egin zizkiguten. Bestalde, derrigorrez bete beharreko baldintzak zeuden, ezkontuta egotea eta etxea eta Iana izatea, adibidez. Ez genuen probak gainditze inolako arazorik izan eta handik urtebetera ezagutu genuen Amaia. 4 egun besterik ez zituenean ikusi genuen estreinakoz, eta dudarik gabe, momentu hunkigarrienetako bat izan zen, magikoa". Begoñarentzat eta An-



*Duela 13 urte Begoña Elizondok eta Andres Saenzek adopzioan hartu zuten Anzat*

dresentzat espero zutena baino askoz esperientzia hobea izan da aita eta ama izatea. Horren lekuko da, ahal izanez gero, beste pare bat seme-alaba izateko prest daudela. Baina azaldu digutenez, "adopzioko arduradunek nahiago dute familia bakoitzak gutxie-

nez haur bat izatea. Kasu batzuetan familia batzuek adoptatutako haur bat baino gehiago baitute eta beste familia batzuek ez dute beraien maitasuna nori eskaini. Haurrak adoptatzeko dagoen eskaria izugarria da".

Psikologoek gomendioak jarraituz, Amaiak 3 urte zituenean jakin zuen adoptatutakoa zela. "Esaten dutenez, adin egokiena da eta ulertuko duen moduan esan behar zaio, hau da, hitz goxoekin eta maitasunez. Kalean edo eskolan jakitea baino hobea da gurasoen ahotik jakitea, haurrek modu krudela goak baitituzte horrelako gauzak adierazteko".

Bikote honen iritziz bizitzako lehenetsunak asko aldatu dira.

"Azkenaldian, haurrak izateak baino, bizi-kalitate hobea bilatzen du jendeak. Konpromisorik gabe eta lasai bizitzea nahi dugu denok, eta haur bat hezitzea guztiz kontrakoa denez, haur gutxi jaiotzearen zergaitietako bat izan daiteke".

# Zuzena iruditu al zaizu Jugoslavia bonbardatzeko NATOk hartutako erabakia?



**PATXI OSORO**  
47 urte, mekanikoa

Ez. Euskadik NATOr e ezetz esan zion eta ni ere erakunde horren aurka nago. Erasoaren atzean dauden interes ekonomikoen errudunak hernalde kapitalistak dira.



**ITZIAR ETXABE**  
45 urte, saltzailea

Gehiegizkoa iruditzen jata, oso erabaki gogorra da eta ez dakit horrekin zeozer lortuko daben. Dialoguan gehixao saiatu bihar ziala uste dot.



**ANGEL BERISTAIN**  
68 urte, jubilatua

Ez, hiru inuzenteren terkedadiagaitxik sekulako rebozuzihua preparau da Europa guztixan. Jende asko hil eta gaixotu ostian, alperrik da berba itxen hastia.



**MAITE ARANGUENA**  
31 urte, pedagogoa

Beraientzat erabaki bat hartzia zaila izan da, baina gauzak beste bide batzuetatik in biharko litxuzkete eta ez gerrekin. Bertako jendia oso gaizki pasatzen ari da.



**HABIER PRADO**  
19 urte, ikaslea

Geniak gaizki daude, baina OTANek erabaki hori hartu badu zerbaitxegatik izango da. Hitz eginez ez dute ezer lortu eta Millosevicek gerra nahi bazuen, hor dauka.



**MARIA JESUS GARATE**  
50 urte, etxekoandrea

Ez jata ondo beintxantzen, baina bertan daozen jefiekin ere oso egoera txarrian daude. Oin guk biktimen alde in dezakegun bakarra laguntzaren bat ematia da.

4-11 flen

**W\ APRAIZ/**

**CHEN YU**

ETXEAREN ESKAINTZA BEREZIA  
AURPEGIRAKO KREMETAN

- > Azai mistoentzat
- > Azal lehorrentzat
- > Gauerako krema

**Eskaintza  
1.995 pta.**



San Bartolome, 20 • tr 943 74 07 44



## Ehundaka lagun elkartu ziren bakearen aldeko kontzentrazio isilean

Martxoaren 26an, ostirala, 300 lagun inguru elkartu ziren Plaza Handian PNV-EAJ, EA, EH eta IU-EB alderdiek deitutako kontzentrazio isilean. "Bakea eraikitzen Euskal Herriak du hitza" lemapean, pentsamolde askotako herritarrek parte hartu zuten ordu erdiz luzatu zen kontzentrazioan. Udal agintariak ere bertan izan ziren, besteak beste, Jose Mari Oruesagasti alkateordea eta EAko, IU-EBko eta HBko zinegotziak.



## Mandestazioa eta lanuztea izango dira Lizarra-Garaziko alderdiek deituta

Elgoibarko HBk autobusak antolatu ditu Bilboko manifestaziora joateko

**B**ihar, zapatua (hilak 10), manifestazioa izango da Bilbon arratsaldeko 17:30ean, Aita Donostia plazatik hasita. "Bakea eraikitzen Euskal Herriak du hitza" izango da manifestazioaren lema eta antolatzaileak Lizarra-Garaziko Adierazpena sinatu zuten alderdiak eta sindikatuak dira. Era berean, astelehenean, hilak 12, eguerdiko 12:00etatik aurrera, ordubeteko lanuztea egiteko eskatu dute. Ordu berean Elgoibarko Plaza Handian kontzentrazioa izango da. Deialdiarekin manifestua kaleratu dute. Bertan esaten dutenez "Lizarra-Garaziko Adierazpenaren bidetik, 'euskal gatazka' delakoaren sakoneko arazoez mintzatzeko eseri egin behar dugu behingoz, guztion artean erabakitze konponbidearen nondik norakoak". Manifestuaren egileen ustez, "prozesu honen emaitza euskal idtmok askatasunez erabakitakoa izango da". Era berean, Gobernu espainolaren eta frantsesaren erreakzioa kritikatzeko idatzian. "Elkarrizketari uko egiten diote, su-etenik ez balego bezala, eta lehengo erantzun bereberkin jarraitzen dute". Amaitzeko, euskal herritar guztiei antolatutako ekitaldietan parte hartzeko deia egiten diete.

HBk 2 autobus jarriko ditu zapatuklo manifestaziora joateko. Plazatik aterako dira arratsaldeko 16:00etan.

445.000

EA .56,c(sq(

=A<sup>56</sup>↑<sup>6</sup>9q

# eraikitzen

## EUSKAL HERRIAK DU HITZA

### MANIFESTAZIOA

apirilak 10, rarunbata  
arratsaldeko 17:30ean  
AITA DONOSTIA plazatik  
BILBAO

### ordubeteko LANUZTEA

apirilak 12, astelehena  
eguerdiko 12:00etatik aurrera  
KONTZENTRAZIOA Plaza Handian

1111'SK

1 1 1 1 1

## • Santa Klarako ur arazoak konpotzeko bidean

Udaleko arduradunak eta Santa Klarako bizilagunak egunotan biltzekoak dira, auzo honetako zenbait ataritan urarekin dituzten arazoei irtenbidea topatzeko. 20, 22, 24 eta 26 portaletako azken emebizitzak oso altuera garaiart daude Kakatzako deposituarekiko eta hori da ura potentzia gubdrekin heltzeko arazoia. Udalekoek bilerak izan dituzte Gipuzkoako Ur Partzuergoko arduradunekin eta bi irtenbide posible aurkitu dituzte: Lehendabizikoa, Udalak Ur Kontorzioari Kilimonetik Kakatzara doan ubidearen gestioa ematea litzateke. Honen truke Ur Partzuergoak uraren presioa handituko lukeen tresna jarriko luke eta horrela, behar adinako potentziarekin iritsiko litzateke ura etxebizitza guztietara. Bigarrena, Udalak berak presioa igotzeko tresna jartzea litzateke. Makina, mojen konbentu ondoan jarriko luke. Bigarren aukera honek 6 milioi pezetako kostua izango luke. Udalak bi kasuak aztertu beharko ditu, izan ere, presioaren igoerak ur hodiak hautsi dituzte.

## • Ezindu fisikoentzako oporraldi programa

Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Departamentuarekin batera, Ezintasun fisikoak edo sensorialak dituzten pertsonentzako oporraldi programa antolatu du. Bidaia Benidormera, Saloura, Fuenigiolara, Tenerifera, Galiziara, Parisera eta Herbeheretara izango dira. Programa honi buruzko informazio gehiago nahi duten pertsonak Udaletxeko Gizarte Ongizate Sailera jo dezakete (943 74 10 08).

## Danobat Kooperatibak 8.000 milioitik gora fakturatu zituen 98an

Azken urtean 45 bazkide berri hartu ditu enpresak

**M**artxoaren 26an, DANOBAT S. Cooperatiba enpresak bazkideen urteko batzarra egin zuen Herriko Antzokian. Bilerara 261 bazkide eta 26 langile joan ziren. Mahaian Kontseilu Erretorea bildu zen, mahaiburuan Ales Arrieta lehendakaria, Iffigo Ucin gerentea eta Anton Etxeberria, Grupo Danobateko zuzendari nagusia zeuden. Batzarrean 1998ko ekitaldia apartekoa izan zela adierazi zuten. Bai fakturazioarengatik, bai emaitza ekonomikoarengatik eta baita eskari dagokienez ere. Salmenten %70a esportazio bidez egin da eta eroslerik garrantzitsuenak Frantzia, Brasil, EEBB, Erresuma Batua eta Suedia izan dira. Danobateko sektore aeronautikorako enektifikadoreen merkatuan leku esanguratsua lortu du.

### Lanpostu berriak

Danobateko bere enpresa politikari jarraituz, aurten ere lanpostu berri ugari sortu ditu. 1998an 16 langile jutilatu ziren baina beste 45 bazkide be-



*laz produzitutakoaren %70 esportatu egin zen. Eroslerik garrantzitsuenak Frantzia, Brasil, EEBB, Erresuma Batua eta Suedia dira.*

ri onartu zituzten enpresan. Bestalde, h asieran praktike tako kontratuarekin hartutako langile berri ugari ere sartu dira.

Bukatzeko, 1999ko egitasmoen buruz hitz egin zuten batzarrean eta geroari ilusioz, lanerako gogoz eta langile eta bazkideen arteko lankidetzaz ekingo diotela azpimarratu zuten. Eguna, umore onean amaitu zuten Azpeitiko Kiruri jatetxean egindako afarian.

## Elgolbartar igari izan tilra Aste Santuko prozesiselan

**A**ste Santuan jendek kanpora joateko aprobetxatu arren, ez dira gutxi izan herrian gelditu direnak. Hauetako batzuek gainera, eliz-ospakizunetan parte hartu dute. Martxoaren 28an, Erramu domekan, herritar askok erramuak bedeinkatzera joateko aukera izan zuten. 1. izan ere, eguraldi ona lagun, eliza ingurura hurbildu ziren 200 eliztar inguruk Jesus asto gainean iritsi zeneko antzezpena ikusi ahal izan zuten. Ondoren, elizako arkupeetan erramuak bedeinkatu eta intsentsua botatu zuten Benantzio parrokoak. Segidan, prozesioa izan zen San Bartolome eta



*Pazko Domekako prozesioan Amabidinaren eta Jesusen irudiak Plazan elkartu ziren.*

Errosario kaleetan. Bestalde, Pazko Domekan, hilak 4, eguraldi ona lagun zutela, jende askok parte hartu zuten prozesioan. Amabirjina eta Jesusen irudiak Plazan elkartu ziren. Ondoren, Haritz Dantzari Taldeko ki-

de batek aureskua dantzatu zuten eta berehala prozesioa hasi zen herriko kaleetan. Elizako ordezkariak adierazi bezala, "aipagarria da aurten Aste Santuko elizkizun berezietan jende askok parte hartu duela".



## Alderdi Abernaleek elkarrekin ospatu zuten Aberri Eguna

Apirilaren 4an, Aberri egunean, egin ziren ekintzetan parte hartzeko EAJk, EAK eta HBk batera luzatutako deiari erantzunez, 100 lagun inguru elkartu ziren Foruen Plazan. Jose Mari Oruesagasti alkateordeak Udaletxekeo balkoian Ikurriña jaso zuen, eta ondoren, Euskal Herriko UdaI Ordezkarien Biltzarrak egun honetarako prestatutako testua irakurri zuen. Honen ostean, aureskua dantzatu zuten eta nahi zuen guztiak irakurritako testua eskura izan zuen sinatu ahal izateko. Alderdi politiko hauen aldarrikapenaren arabera, "sei herrialdez osaturiko errealitate kulturala, linguistikoa eta historikoa elkartzen da Euskal Herria izenarekin ezagutzen dugun nazioan, beste edozeinek bezala, bere eskubideak dituen eta horiek aldarrikatzeko lan egiten ari dena". Ekitaldi sinplea izan arren, hiru alderdiek batera deitu izana historikoa zela azpimarratu zuten PNV-EAJko, EAKo eta HBko zinegotziek.


## 100 haur inguru elkartu ziren Atxutxiamaikak antolatutako Udaberri Jaian



Martxoaren 27an, larunbata, Atxutxiamaiak Begirale Taldekoek antolatuta, *Udaberri Jaia* izan zen Plaza Handian eta 100 haur hurbildu ziren bertara. Urtaro berriari ongi-etorria emateko 17:30ean haurrek jolasetan parte hartzeko aukera izan zuten eta ondoren, 20:00ak aldera, etxetik ekarritako ogitarteak jan zituzten. Gaueko 21:00etan Baltzola anaien trikiti doinuak izan ziren entzungai eta 22:00ak aldera arte dantzan aritu ziren haurrak giro alaian.


## Udaletxekeo latxada eta frontoia berritzeko lanak hasi dituzte

*Euskadi* enpresak hasi ditu Elgoibarko Udaletxea eta Plaza Handiko frontoia eraberritzeko lanak. Enpresa berak duela urte gutxi Parrokia berritzeko lanetan ere hartu zuen parte. Orain hasi berri dituzten obrek ia 8.996.165 pezetako kostua dute eta bi hilabeteren buruan lanak amaitzea espero dute. Berritze lanak egiteko *Prolinor* enpresak ere aurkeztu zuen proiektua baina garestiagoa zen eta hilabete erdi gehiago eskatzen zituzten lanak amaitzeko. Orain arte, ez da sekula Udaletxekeo fatxada eta frontoia garbitu eta proiektu honekin herriko plazari itxura berria eman go zaio. Momentuz Udaletxea barrutik ez da berrituko.



## Giro alai izan zen Ikastolako DBHko ikasleen jaialdian

Ikastolako DBHko ikasleen urteko jaialdia izan zen martxoaren 25ean Herriko Antzokian. Arratsaldeko 19:00etan hasi zen jaialdia eta Ikastolako neska-mutilak Antzokiko eskenatokira igota kantuan, bertotan eta antzezle lanetan aritu ziren. DBHko ikasleak giro alaian aritu ziren eta aretoa beteta egon zen gurasoz, ikaslez eta irakaslez.



## Entzule gutxi Theitz taldearen kontzertuan

Gazte Asanbladak antolatuta, *Iheitz*a musika talde nafarraren kontzertua izan zen martxoaren 26an Gazteocan. Gaueko 22:00etan hastekoa zen saioa berandutu egin zen eta Gaztetxera hurbildutako 50 lagunek 23:00ak arte zain egon behar izan zuten *Iheitz*a taldearen musika alaiaz gozatzeko. Seikote leitzarrak mota askotako doinuak eskaini zituen, besteak beste, ska, rock eta pop musika.



## MARTHOAN

### •••• JAIOTAKOAK ••••

- Iker Lauzirika Ansola

(Martxoak 5)

- Nekane Agirregomezkorta

Unatmmo

(Martxoak 14)

### •••• EZKONDUTAKOAK ••••

- Bernardo Jose Intxausti

Aizpuru eta Maria Elena

San Martin Aranzeta

(Martxoak 26)

- Aitor Eizagirre Ondarza

eta Agurtzane Arriola Diez

(Martxoak 27)

### •••• HILDAKOAK ••••

- Sabina San Llorente Iglesias,

66 urte (Martxoak 15)

- Pedro Ortega Cani6n,

73 urte (Martxoak 21)

- Francisco Segundo Flores,

64 urte (Martxoak 24)

## Juliana Alberdi Zubizarreta (1912-1980)



• 1912ko otsailaren 17an jaio zen, San Lorentzo bailarako 'Basueta' baserrian. 3 anai-arreba ziren, bera bigarrena. Oso gaztea zelarik hasi zen baserriko lanetan laguntzen eta Garai hartan ohikoa bezala, ez zuen ikasketak behar bezala bukatzeko aukerarik izan.

10 urterekin Eibarko 'Pagua' baserrira joan zen bizitzera eta hemen ere gogor lan egin behar izan zuen, soroko lanetan aritu zen, Eibarrera errekadutara jaitziz eta abar.

• Jai giroa atsegin zuen eta kuadrilakoekin batera Arrateko, Usartzako eta inguruko beste erromeriatara joaten zen. Oso trebea zen dantza soltean.

• 24 urterekin ezkondu zen Inaxio Agirregomezkorta eibartarrarekin eta alaba bat izan zuten, gaur egun Fotero okindegiko arduraduna den Maritxu.

• 1936ko gerrate garaian baserria erre zitzaien eta Julianak 28 urte bakarrik zituenean senarra hil zitzaion. Zoritar hauen ondorioz, Elgoibarrera bueltatu beharra izan zuen bere familiarengana.

• Julianaren gurasoak oso ezagunak ziren, ama pandero jolea zen eta aita, beniz, 'Mareoni' goitzenaz ezaguna zen elektrizista.

• 1939an hasi zen Sigman lanean eta jubilatuta arte egin zuen lan bertan. Emakume atsegina zenez, lagun asko egin zituen.


• Lanean hasi eta 15 urtera Felix Izagirre elgoibartarrarekin ezkondu zen.

• Hizitaria, sinesmen handikoa eta familia girokoa zen. Euskal Herriko dantzak eta abestiak oso gustuko zituen, baita soinu txikia entzutea ere.

• Irrifarrea inoiz galtzen ez zuen emakume alai hau 1980ko abenduaren 3an hil zen, oraindik 68 urte besterik ez zituela.

Juanito Gorostiza

42.000



## ETXE BERRIR

### Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK TRASLADOAK KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI

zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01

# KALE ZULOTIK BASERRIRA

BASERRIARI BURUZKO GEHIGARRIA

## IAN eta FRANCESCA:

# "San Lorentzoko auzotarrek oso harrera ona egin digute"

*Ianek 43 urte ditu eta eskoziarra da; Francescak 37 urte ditu eta ingelesa da. Biak ingeleseko irakasleak dira eta duela urte eta erdi Elgoibarko San Lorentzo auzoko baserri batera etorri ziren bizi izatera. Pazko asteo oporrak aprobetxatuz, beraiekin egon gara auzo honetako bizitzara nola moldatu diren jakiteko.*

### - Nola etorri zineten San Lorentzo auzora?

Duela bost urte ni (Francesca) Elgoibarrera etorri nintzen ingeleseko klaseak ematera. Nire ikasle bat San Lorentzo auzokoa zen eta bere etxean izan nintzen batean, bailara honetan bizitzea nire ametsa zela iruditu zitzaidan. Ikasle honek eta bere lagun batzuek terrenoa bilatzen lagundu ziguten eta urte batzuk beranduago, ametsa egia bihurtu da. Lurrak erosi eta etxe bat eraiki genuen eta oso gustura bizi gara.

### - Baserriko bizitza egiten al duzue?

Biok kanpoan lan egiten dugu eta oraingoz ez daukagu baserriko lanetan aritzeko astirik. Hala ere, aurrerago ardi batzuk ekartzeko asmoa daukagu. Baserriaren inguruko lurrak oso onak direnez ortu txiki bat ere badaukagu, baina bertatik ateratzen duguna etxeko kontsumorako baino ez da.

### - Auzoan zer moduz hartu zaituztete?

Oso tratu ona jaso dugu hasieratik, eta horrek asko harritu gaitu. Ingalaterran kanpotarren bat herri txiki batera bizitzera doanean errezeloz hartzen dute, baina San Lorentzon alderantziz gertatu zaigu. Gaztelaniaz ez dugu ongi hitz egiten eta ez dakigu euskaraz, baina hala ere, hitzez ezin daiteke azaldu auzoko jendeak guganako izan duen harrera ona. Auzotarrekin oso ongi konpontzen gara. Inguruko baseniak eta jendea ezagutzen

ditugu eta piskanaka beste guztiak ere ezagutuko ditugula uste dugu.

### - Zaila egin al zaizue bizitza berri bonetara moldatzea?

- Niri (Francesca) ez zait oso zaila gertatu. Txikia nintzenean nire ama kostaldean, baserri baten ondoan bizi zen, eta orain ere, mendi aldean bizitzea nahiago dut hiriko giroa baino. Hemen lasaitasuna jende askoren ametsa da.

### - Askotan itzultzen al zarete zuen jaioterrira?

- Urtean behin, edo ba-

tzuetan hori ere ez. Ni (Ian) aurten Aste Santuan bertan izan naiz, baina bi urte neramatzan hara joan gabe. Nire ama eta ahizpa (Francesca) hemen daude orain, eta baliteke ama hona etortzea gurekin bizitzera. Guk ere hemen gelditzeko asmoa daukagu.

### - Zer dauka Euskal Herriak zuek hemen horren gustura egoteko?

- Oso paisaje ederrak dauzka, mendiak, itsasoa. Eta batez ere, jende jatorra, pazientzia asko dauka hemen jendeak. Kultura ere oso ezberdina da. Hemen gazteek ekintza kulturetan parte hartzen dute, han ordea, beraiek nahi duten bakarra gurasoengandik aldentu eta bakarrik bizitzea da. Hemen familiaren zentzu handiagoa dago.

### - Animatuko al zenukete kanpoko jendea hona etortzera?

Bai, noski. Guri gauza asko eman dizkigu hona etortzeak eta besteak ere gonbidatuko genituzke. Hala ere, atzerritarrok zailtasunak izaten ditugu lana topatzeko. ingelesa irakasten bakarrik aritu gaitezke, eta lana badagoen arren, ez da diru askorik irabazten. Bestalde, askatasun gehiago dago egun batean afaltzera lasai ateratzeko, erretzeko edo edateko. Ingalaterran arlo horretan zorrotzagoak dira. Bizitza hemen zoragarria da.

*Ian-i eta Francescari Euskal Herriko paisajea eta jendea gustatzen zaizkie.*



# DEBEMENen proiektu berriak

DEBEMEN 1991 urtean sortutako Deba Beheko Mendi Nekazaritza Elkartea da. Deba Barreneko baserriarren beharrei erantzuteko eta beraien eskaerak betetzeko eratu zuten elkarte hau. Baserriarren bizi-kalitatea hobetzeko ur horniketak edo baserrietara doazen bideen konponketak egiten dituzte. DEBEMEN elkarteak Deba Barreneko sei herritako Udaletako ordezkariak eta nekazal elkarteetako eta sindikatuetaordezkariak osatzen dute. Gaur egun elkartearen zuzendaritzaren ardura Agurtzane Etxaniz eibartarrak dauka.

gurtzanek eman digu hain zuzen ere, aurtan DEBEMEN

EN elkarteak Elgoibarren egiteko dituen proiektuen berri. Urtero, Deba Barreneko Mendi Nekazaritza Elkartearen parte hartzen duten Udalek, baserriarren eskabideak aurkezten dituzte DEBEMENen. Hauetaz gain, nekazari elkarteek ere beraien eskaerak egiten dituzte. Eskabide guztiak jaso ostean, DEBEMENeko partaideek batzar orokorra egiten dute eta bilera honetan aurkeztutako proiektu guztiak aztertzen dituzte. Proiektuak aurreratzeko orduan besteak beste, dedikazioa, beharra eta aurrekontua hartzen dira kontuan.

Aurtan martxoaren 9an urteroko komitea egin zen. Komite honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko, Eusko Jaurlaritzako, sindikatuetaordezkariak eta Gipuzkoako Mendi Nekazaritzako koordinadorea biltzen dira. Bileran zerrenda definitiboa onartzen dute eta hortik aurre-



San Pedroko lokal sozialaren 1. fasea egitea dago, besteak beste, DEBEMENen proiektuen artean.

ra proiektuak egiten has daitezke.

Hobekuntza lanak bukatu ostean, ordain-agiriak DEBEMENera eramaten dituzte eta ondoren, ziu-tagiria Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzen dute.

## Aurtengo Elgoibarko proiektuak

1999 urterako DEBEMEN elkarteak hainbat proiektu bideratuko ditu Elgoibarren. Batetik, San Lorenzo bailarako sei baserriaren ur depositoak egin behar dituzte, batzuk 20.000 litrotakoak dira eta 15.000 litrotakoak besteak. Bestetik, Mausitza baserriko bidea jadanik konponduta dago eta asfaltozko bide honek 2 kilometrotik gora dauzka. Hirugarrenik, San Pedro bailarako eliza eta ingurua auzo bereko Zartuitxa, Ipintza, Akei eta Aitzbizkar baserriekin elkartuko dituen pista egiteko proiektua onartu dute. Bide honen helburuak dira, baserriarrak San Pedro bailararekin komunika-

tzea eta suterren bat izango balitz, pista hori erabili ahal izatea. Izan ere, baserri hauetako bizilagunak San Pedrorra joateko errepide jeneralerara atera behar dira, Azkenik, San Pedro auzoko lokal sozialaren proiektua egiteko asmoa ere DEBEMEN elkartearen aurtengo egitasmoen barruan sartzen da. Lehenengo fase honetan lokalaren kokapena erabakiko dute auzotarrek eta Udaleko eta DEBEMENeko ordezkariak. Lokal hau baserriarrak biltzeko eta beraien elkarte gisa erabiltzeko izango da.

Proiektu hauek guztiak egiteko aurrekontuak aurkeztu ondoren, kostuaren %55a subentzionatzen dute. Aurrerago DEBEMEN elkarteak Deba Barrenean beste zenbait proiektu dauzka egiteko, baina Elgoibarren aurtengo urterako aurreritakoak honako hauek dira. Hauek amaitu bezain pronto datorren urteko eskariak aztertzen hasiko dira.

## DEBEMENen 1999ko ELGOIBARKO PROIEKTUAK

PROIEKTUA	AURREKONTUA	SUBENTZIOA
Armaitxa baserriko ur horniketa	1.740.065 pta.	957.036 pta.
Gelatxo baserriko ur horniketa	615.436 pta.	338.490 pta.
Antxola baserriko ur horniketa	1.589.973 pta.	874.485 pta.
Upai-txiki baserriko ur horniketa	2.187.925 pta.	1.203.359 pta.
Mausitxako bidea	12.985.931 pta.	7.142.262 pta.
Zartuitxa-San Pedro pista	1.798.000 pta.	988.900 pta.
San Pedroko lokal sozialaren 1. fasea	903.136 pta.	496.725 pta.

# LIZUNDIA ba erria

Arriaga auzoko kanteran gora eginda Lizundia baserria dago. Bi etxebizitza dituen baserri honetan bizi dira Pilar Uria eta Andres Astigarraga eta beraiekin egon ginen asterarte arratsalde batez. Esnetarako behiak hazten dituzte eta baserriko lanak lotuak direnez, etxeko denak lanean jarduten dute bertan. Hala ere, hartu zuten atsendalditxo bat guri baserriko bizimoduari buruzko zenbait kontu esateko.

**P**ilarren aitona Lizundia baserriari jaiotakoa da eta urte luzeetako historia dauka baserri honetik. Berak esan digunez "ehun urteko arrastua badao. Ni neu hemen jaixotakua naiz eta baitxa nere seme-alabak ere. Senarra kanpokua da baina danok hemen bizi gera". Betidanik baserritik bizi izan dira eta piskanaka gauzak lagatzen joan badira ere, gaur egun esnetarako behiak dauzkate. Goizean eta gauean josten dituzte behiak makinekin eta esne guztia zentralera saftzen dute. Horrek lotura handia eskatzen du. Lehen okelatarako ganadua ere baizeukaten baina badira bi urte utzi zutela, "danakin ezin eta okeletarakuak kendu eta esnetarakuak aumtatu ditxugu oindik esne gehixao ateratzeko". Baserritik bizi daitekela aitortu digu Pilarrek, beraiek urte luzeetan iraun baitute bertan ateratakoarekin. Baina denborak aurrera egin ahala, baserriak ere aurrera egin behar duela eta zenbait berrikuntza egin dituzte Lizundian. "Baserrixak beti izaten du piskat berriztu biharra. Lehen kuarto de bafmak konpondu giñuzen eta oin kuartuak berrizten gabiz. Kanpotik ere bagabiz itxura berrixa ematen, oindiokan zuritzia falta jaku, baina laister ingo dogu hori ere".

## **Kanterako zarata**

San Antolin auzotik autopista pasatzen da baina beraiek ez dute auzoan inongo zatiketarik igarri, "urruti samar geratzen jaku eta, gu ez gaitxu moles-tau, gu benetan molesstatzen gaitxuana kanterako tiruak dia. Horrek noiznahi kristalak dardarka ipintzen ditxu". Auzoan beti izan da giro ona. San Antolinetan jaiak egiten ziren garai batean, baina ohitura asko galduta daudela esan digu Pilarrek. "Gure denboran elizia ere bazuan, baina haura bota in zeben eta lokal bat erosi genduan asko



## **Igandetako karta-jokoa**

Pilar txikia zenean bailarako jendea Lizundia baserrian elkartzen zen karta-jokoan egiteko. Gero amona gaixotu egin zen eta Gorriña baserri-ra joaten hasi ziren. Hala ere, umeak jaio ziren eta laga egin zuten. Denak biltzen zirenean, gaztainak erre eta auzoko kontuak esanez pasatzen zituzten igande arratsaldeak.

pagauta. Gero Obispaua in zan haren jabe. Gaztiak ez dia auzoko jaixetara ohitxu baina guk ondo pasatzen genduan. Gure ama zana, bilobak hartuta ,asto karrerak edo probak ikustera juten zan eta gu ezkondu eta gero ere ,iluntzian buelta bat ematera jaisten ginan". Gaur egun ordea, igandetako meza baino ez dute izaten.

Lizundia ba.serrikoek ez daukate kalerako joera handirik. "Asteko errekauek kalera bajatzen danak eitxen ditxu eta bestela etxian daukagunakin moldatzen gera. Arrautzak, patatak eta berdurak etxian dauzkagu eta txahal bat ere hil genduan eta horrekin nahikua daukagu".

Baserriko lana oso Iotua da eta semeek hartu dute gurasoen erreleboa. Batzuek kalean lan egiten dute baina etxera erretiratzen dira eta ahal dutenean baserrian ere aritzen dira. Pilarrek esan digunez, "gu piskat zahartu in gera eta laga in dogunez, oin libriao gabiz, hala ere, semiak eginkizunen bat dakanian etxian zeozer itxen dogu guk". Lehengo ohiturak asko galdu dira eta baserriko bizimodua ere aldatu egin da, "sasoi baten astuan bajatzen ginan kale-

ra. Sagar sasoia zanian bi asto lotu eta Eibarreraino juten ginan azokara. Lehen frutia ere gehixao jaten zan, baina oin sagarrekin indako mermeladia eta menbrillua bakarrik nahi izaten dabe etxian". Elkar lagunduz Lizundia baserriari pozik egiten dute lan, eta ahal duten artean behintzat, bertan jarraituko dutela esan digute.

## **LIZUNDIA**

■ **Auzoa:** Amaga

■ **Bizilagunak:**

Antonio Astigarraga, 66 urte; Pilar Uria 63 urte; Alberto Astigarraga 28 urte; Andres Astigarraga 23 urte; Iñaki Astigarraga 21 urte.

**hedadura:** 40 hektarea  
**ESP1013~7**

Esnetarako 31 behi eta 37 higantxa eta 8 txahal.

# BIZINLETA gainean

## SANTA KLARA - URKAREG1 - HIRUITURRI SAN MIGEL BAILARA - SANTA KLARA



**Distanzia:** 18 km.

**Denhora:** 3 ordu

**Zailtasuna:** erdikoa

*Mugerza baserriaren paretik pasatzean atariaren gainean aintzinako armarrria ikus dezakegu.*

Santa Klara auzoan hasi eta aldapan gora San Migelera iritsiko gara. San Migeletik Markinaruntz jarraitu eta Gipuzkoak eta Bizkaiak muga egiten duten puntura, Urkaregira, joko dugu.

**m 2** Eskumaruntz jo eta zementozko pistatik (GR 121-123) Hiruiturriko lautadara helduko gara. Bidean Urkaregi - Gurutze baserritik pasako gara.

**m 3** Hiruiturriko lautada atzean utzita, mendiko pistatik Uba-Handi baserrira joango gara eta hemendik, zementozko pistari jarraituz, Mugerza baserrira.

**m 4** Mugerza baserriaren paretik pasa ondoren, berriz mendiko pistan sartu eta Erreketa baserrira iritsiko gara. Behera jarraitu eta Altzate baserrira iritsi baino lehen, eskumara joko dugu. Mugerzatik Erreketara bitartean jaitsi behar den aldapa oso handia da.



**m 5** Mendiko pista jarraituz Aizti baserrira helduko gara.

**a 6** Aiztitik behera asfaltozko errepide estua jarraitu eta Errotatxo baserri paretik pasatuko gara Santa Klararako hasierako bidera heldu arte. Hemen bukatuko da bizikletaz egindako txangoa.

*Aizti baserritik behera Santa Klarara jaisten da.*

**Informazioa:**

Andoni Etxeberria



## 1999ko UDAL AURREKONTUAK

# OGEke old tirrajonn 1832.511.= pazoldwa da

laz baino 201 milioi pta. gehiago izango ditu Udalak gastuetarako

Martxoaren 25ean ez ohizko plenoa izan zen 1999ko aurrekontuen inguruan. Guztira 1.332.500.000 pezetako aurrekontua du Elgoibarko Udalak 1999 urterako. PNV, EA eta PSE-EE ren aldeko botuekin eta HB, PP eta IU-ren aurkakoekin onartu zen aurrekontua. Hona hemen alderdi bakoitzak esan zuena.

### PNV

Isaac Loiola, Haziendako buruak eta EAJ-PNVko zinegotziak esan zuenez, "aurtengo aurrekontuak aurreko hiruren ezaugarri berak izan ditu, hau da, zorrotasun ekonomikoa, gastuen kontrola eta austertate ekonomikoa. Orain arte emaitza ezin hobek eman ditu formula honek. Beraz, ez daukagu zertan esperimenterik egin". Orain dela 4 urte zegoen egoera ekonomikoa nabarmen hobetu dela adierazi zuen Loiolak eta datuak eman zituen, "1998ko aurrekontuarekin konparatuz, aurrezki gordina %20,8 igo ziteza espero dugu eta aurrezki garbia, berriz, %40. Inbertsioei dagokienez, mailegurik eskatu gabe oso gutxitan izan ditu Udalak horren zifra onak". Bere azalpena, aurrekontu hau udalak eta herriak behar duena dela esanez amaitu zuen.

### EA

Fennin Senosiain, EAko zinegotziaren hitzetan, "aurtengo aurrekontuak aurreko urteetako aurrekontuen bide beretik jarraitzen du, legealdi amaierako aurrekontua dela nabari zaio eta ekaineko UdaI Hauteskundearen ondoren etorriko direnek egoera nahiko onean aurkituko dute Udala". Ferminek Hirugarren Munduarentzako laguntzarik ez ematea kritikatu zuen, "kontraesana iruditzen zaigu jaietan 33 milioi gastatzea eta Hirugarren Munduarentzat ezer ere ez bidaltzea". Bukatzeko, herritarrak Udaletxean parte hartzea animatu zituen, "azken 8 urteotako egoerarik onenean gaude eta etorkizuna inoiz baino oparago ikusten da."



EAJ, EA eta PSEren botuekin onartu zen Gobernu Batzordeak aurkeztutako aurrekontua.

### HB

Herri Batasunako Pello Mendizabalek adierazi zuenez, "aurtengo aurrekontuan gastatzeko diru gehiago izan arren, presio fiskala ez da jaitsi. Udalak autonomia gehiago izateko diru gehiago jaso beharko luke Diputazioako diru fondoetatik, %10 bakarrik jaso beharrean %15 jaso beharko genuke". Herriarentzat faltan botatzen dituen atal batzuk aipatu zituen ondoren, "komertzio txikia laguntzeko neurriak hartzea falta da eta herri erdigunean, Plaza Txikian adibidez, aparkalekuen beharra dago. Bi neurri hauekin Elgoibar zentro komertzial bihurtuko litzateke". Alkateak jasotzen dituen dietak kritikatu zituen eta goi mailako erakundeentzako aurrekontuen zati handiegia dagozkiela adierazi zuen, "gugandik urruti dauden

erakundeak dira, kontrolatzeko oso zailak, Kutxa adibidez". Etxebizitza herrien proiektuei dagokienez, Urruzunoko proiektua ez dela kalitatezkoa esan zuen. Gainera, Udala beste era bateko alternatibak aztertzen hasi beharko litzateke. Adibidez, alokairuko etxebizitzaren politika egokia egitea. Euskara Batzordeak proiektu berri bati ekiteko jasoko duen diru partida begi onez ikusten dutela ere esan zuen.

### PP

Juan Carlos Abian PPko zinegotziak, Udalak dituen zorrak gogora ekarri zituen eta hauek murrizteko ahalegin handiagoa egitea proposatu zuen, "batez ere bizi dugun egoera ekonomiko oparoa aprobetxatu beharko litzateke". Emendekin batzuz ere aurkeztu zituen, baina alkateak ez zituen onartu, erregistrotik pasa gabe zeudelako".

### EB-IU

Juan Ignacio Ausin, EB-IUko udal ordezkariak parte hartze gutxi izan dituen aurrekontuak izan direla kritikatu zuen, "politikoki zuzenagoa, batzordeetan aurrekontuen datuak aurkeztu baino lehen, oposizio alderdiekin bilerak egitea izango litzateke. Edukiarekin baino formarekin ez nago ados, defizit demokratikoa duen aurrekontuak dira nire ustez".





## AAJL:P,;1P/IVK


(1. Kap.) Zerga zuzenak .....	257.750.000	(Iaz 252.480.000)
(2. Kap.) Zeharkako zergak .....	60.413.517	(Iaz 20.002.252)
(3. Kap.) Beste tasa eta zerga batzuk ..	282.215.087	(Iaz 216.298.000)
(4. Kap.) Diru laguntzak .....	681.100.000	(Iaz 592.613.327)
(5. Kap.) Sarrera Patrimonialak .....	820.000	(Iaz 356.000)
(6. Kap.) Inbertsioen enajenazioa .....	150.000	(Iaz 600.000)
(7. Kap.) Bestelako diru laguntzak ....	50.051.396	(Iaz 110.523.948)
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>1.332.600.000</b>	<b>(Iaz 1.131.600.000)</b>

## tAtirLAIt

(1. Kap.) Pertsonal gastuak .....	322.503.508	(Iaz 315.859.071)
(2.Kap.) Gastu arruntak .....	325.564.129	(Iaz 302.414.860)
(3.Kap.) Interesak .....	45.846.753	(Iaz 59.605.762)
(4.Kap.) Subentzio arruntak .....	234.254.232	(Iaz 243.035.659)
(6 Kap.) Inbertsioak .....	285.385.302	(Iaz 97.300.g66)
(7.Kap.) .....		(Iaz 3 754.310)
(9. Kap.) Mailaguen amortizazioa ...	118.946.076	(Iaz 102.576.274)
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>1.332.600.000</b>	<b>(Iaz 1.131.600.000)</b>


## tAtIrIJJ N AURRtX0,11TUA tAL, rn tA1L

### EvaiumA




ZOR PISLIKOA .....	164.792.829
GESTIO EKONOMIKOA .....	Pertsonal gastuak ..... 44.964.496
	Bestelako gastuak ..... 15.103.596
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>224.860.921</b> (Iaz 222.145.288)

### BARNE tAliiL/A



Agintarien ordainsariak .....	16.422.776
Dieta, protokolo eta telefono gastuak	2 225.000
Hainbat gaslu	1 732.000
Batzordeetara asistentzia	8 500.000
<b>Administrarien ordainsariak .....</b>	<b>29.264.903</b>
Bestelako gastuak .....	19.946.860
Udaltzaingoaren ordainsariak	75.612.608
Erosketak, konponketak, jantziak .....	4.590.000
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>158.294.147</b> (Iaz 182.688.992)


## PiAltiALEUNITU cmannA CAItUNA AZOIA



ONGIZATE ETA OSASUN .....	Pertsonal gastuak .....	33.731.421
	San Lazaro egoitza	17.200.000
	Etkez eixeko laguntza	10.000.000
	<b>Garantiako moduloak .....</b>	<b>2.500.000</b>
	Kooperazio sozialerako programa	5 800.000
	Prerniazko laguntza familiei	7 000.000
	Elkarteei laguntzak	7.450.000
	Bestelako gastuak	21.182.800
	Jubilatuena Etxea	6 900.000
	Enplegu sustapena	6 090.226
KALE GARBIKETA .....	Pintadak garbitzea	1 000.000
	Kaleko garbilasuna	37.941.491
	Zabor bilketa	42.284.730
Babes Soziala .....		3 507.107
Hilerria .....		934.840
Kontsumitzaileen babesa .....		2.400.000
Azoka .....		5 304.284
<b>GLIZURA .....</b>	<b>211.226.899</b>	<b>(Iaz 219.287.962)</b>


# antlETZA JM GIALIA 1115WAL

HIRIGINTZA SAILA .....	Pertsonal gastuak .....	63.152.001
	Kaleen konponketa	10.500.000
	Argien konponketa	5 000.000
Kaleko argi indarraren kontsumoa		15.514.502
	Tresnak eta Erramintak	2 500.000
	INJELAN	2 000.000
	Arkitektuaren ordainsaria	1 456.710
	Lurren erosketa	51.000.000
Erabilera orokorreko ondasunak		10.000.000
	Inmuebleen konponketak	10.000.000
	Musikeskolako eraikuntza	52.165.523
	Plano topogralikoa	3 132.000
	Ikerketa Soziourbanistikoa	3 950.100
	Bestelako gastuak	11.286.467
SANEAMENDUA, HORNIKETA ETA UREN BANAKETA		
	Pertsonal gastuak	11.027.859
	Instalazioen eta makinien konponketa	4 000.000
	Ur horniketa	35.600.000
	Ur kontzorzioa	23.846.640
	Kaleetako ur sareak	2 000.000
	Bestelako gastuak	4 535.000
BIDE PIIBLIKOAK . San lorentzoko errekaostaren ubideratzea .....		42.635.163
	Kaleak asfaltatzea	5 000.000
	Kaleen konponketa	20.000.000
	Urruzunoko bidea	5 000.000
	Eliz-dorrearen konponketa	3 000.000
	San Migel uholdeetatik babesteko	2 115.453
NEKAZAL GARAPENA .....	DEBEMEN.....	3 829.396
	Nekazal inguruetan erretegiak jartzea	6.000.000
	Nekazal inguruneetako lanak	50.000.000
	Arbolen eta landareen erosketa	400.000
GIZTIRA .....		474.646.814..... (Iaz 266.199.909)



# XULTURA o aunmA karitUITU

HEZKUNTZA .....	Pertsonal gastuak.....	3 352.742
	Eskolen gastuak	13.540.000
	Eskolei laguntza	11.361.347
KULTURA .....	Pertsonal gastuak .....	10.973.709
	Herriko jaiak	31.218.350
	Pelikulen alogera eta garraioa	8 100.000
	Udal Gazte Batzordea	2 000.000
	Antzetzaldean lanak	4 000.000
	Udal Kirol Patronalua	41.100.000
	Musika eta Dantza fundazioa	44.000.000
	Haurtzaindegia	11.696.695
	Zine subentzioak	1 800.000
	Auzoetako jaiak	2.150.000
	Kultur erakundeei laguntza	5 292.276
	Bestelako gastuak	17.518.846
LIBURUTEGIA .....	Pertsonal gastuak.....	2 214.777
	Liburuen erosketa	1 750.000
	Bestelako gastuak	3 925.000
EUSKARA .....	Pertsonal gastuak.....	2 176.706
	DEBABA Euskaltegia	10.316.742
	Elkarteei laguntzak	18.545.029
	Euskararen erabileraren ikerketa	550.000
	Bestelako gastuak	1 889.000
GUZTIRA .....		263.471.219 (Iaz 241.277.849)





## Asier Arrieta

- a Adina: 28 urte.  
Gustuko beste kirolik?  
Futbola jokatzeko eta esku pilota ikusteko.
- a Beste zaletasunik?  
Kirolak orokorrian, eta lagunekin kalian ibiltzia.

-Madrileko 50 kilometroko lasterketan parte hartu zenuen, zer moduzko esperientzia izan da?

Esperientzia positiboa izan da. Lehen aldixa zan holako proba baten parte hartzen nabala eta banaukan beldur pixkat. Garrantzitsuena erritmo egokixa aukeratzia da. Derrigor-tuta zaoz poliki jutera, bestela ez dozu amaitzen. Lasterketa bat baino gehixo, abentura bat izan zan.

-Noiz eta nola hasi zinen distantzia luzeko lasterketetan parte hartzen? Oin dala bi urte Donostiako marathoia korritxu naban eta oso gustora ibili nitzan. Behobia-Donostia bezelako marathoi erdi asko ein ditzut. Baina korrika eitxiak engantxau eitxen zaitxu eta lasterketa bat amaitxu orduko hurrengo erronkan pentsatzen hasten zera. Gainera, distantzia luzietan gehixo disfrutatzen dotela konturatu naiz, kilometro gutxi-ko lasterketetan gero eta nibel gehixo dao eta azkarregi korritzen da. Nere helburua ez da konpetitzia, hobby bat moduan hartzen dot. Lehen futbolian ibiltzen nitzan baina konpetizio giro edo irabazi bihar hori ez jatan gehixe gustatzen. Lagatzia erabaki naban eta korrika eitxia bezelako kirol indibidualetan sartu nitzan.

-Nola entrenatzen da horrelako proba bat? Urte osuan entrenatzia

komeni da, baina 50 kilometro ditzun lasterketa baterako adibidez, 2-3 hila-bete lehenao hasten ditzut entrena-mentuak. Dana dala, gustora juten naiz entrenatzera, azkenerako gorputzak eskatzen dia korrika eitxia, egunen baten huts ein ezkerro, faltan botatzen dot.

-100 kilometroko probaren irabazleak denbora harrigarria egin zuen, ezta? Bai. Hungariar batek irabazi zaban 6 ordu eta 40 minutuko denborarekin. Jarraixan irabazten dahan laugarren aldixa da eta espektakulo bat zan antxintxika ikustia. 10 kilometroko zirkuituari buelta bat eman orduko atsedena hartzera gelditxu, ura edan eta emaztiakin berba eitxen zaban berriz, izugarrizko erritmuan jarraitxu aurretik. Gu 23. kilometruan doblau gintxuan.

-Pertsona famaturik ere ezagutu zenuten?

Bai, zirkuitua Madrileko Vallecas auzoan zauan. Poli Diaz boxeolarixa bertakua danez, sarixak banatzen zauan eta berarekin argazki bat ateratzeko aukeria izan gendun. Argazki majua urten da.

-Entrenatzeko, San Lorentzo edo Mintxeta? Mintxetan oso gustora ibiltzen naiz. San Lorentzorako bidia aldapatsua eta gogorra da. Askotan erreta bukatzen dot.

## KIROL ALBISTEAK

### • Helduei zuzenduriko igetiketa ikastaroak izango dira Kiroldegian

Udal KiroI Patro-natuak helduei zuzenduriko hasierako eta hobekuntzako igeriketa ikastaroak antolatatu ditu. Ikastaroak apirilaren 12an hasiko dira Olaizaga kiroIdegian. Klaseak, goizez 8:00etatik 8:45era edo arratsalde 20:00etatik 20:45era izango dira. Astelehen eta asteaz-

kenetan edo astearte eta ostegunetan izango dira klaseak. Larunbatetan ere badago taldea osatzerik goizeko 9:00etatik 10:00etara. Ikastaroen prezioa 5.200 pta.koa da Patriariatuko bazkideentzat eta 6.200 pta. bazkide ez direnentzat. Izena Kiroldegian eman dai-teke (943 74 44 15).

### Jende gazte asko izan zen Efiurrategi anaien "Kordadako lagun galduan Ikusentzunezkoan



Iñurrategi anaiak "Kordadako lagun galdua" ikusentzunezkoarekin Manaslu, Dhaulagiri eta JaIa Peri mendietara egindako espedizioetan ateratako argazki ikusgariak erakutsi eta esperientzia harrigarriak kontatu zituzten pasa den martxoaren 30ean. Herriko Antzokian ia betetzea lortu zuten eta ikusle gazteak izan ziren nagusi. Alberto Iñurrategik ez zuen etortzerik izan, baina bere anaia Felixek eman zituen azalpenak. Argazkian, Felix mendigoizalea ikus dezakegu Morkaiko Mendizale Elkarteko kideak inguruan dituela.

## Zuhaitz Gurrutxaga izan da jokalaria onena Errealak antalatzen Lilien hijaziarlto FullEO Txapelketan

Estatuko eta atzerriko jubenil mailako 8 taldek hartu dute parte

**Z**uhaitz Gurrutxaga elgoi-Martarrak 18 urte ditu eta Errealeko jubenil taldean jokatzen du. Pasa berri den Aste Santuan, hilaren 2tik 5era bitartean, Errealaren Nazioarteko Txapelketan aritu da. Errealak finalera iristea lortu zuen eta Athletic-en aurka neurtu zituen indarrak. Azkenean, bilbotarrek penaltien jaurtiketetan irabazi zuten finala, baina jokalaria onenari ematen zaion saria Zuhaitzentzat izan zen. Garaikur hau jasotzeko merituak egin ditu Zuhaitzek, izan ere, defentsa izanik bi gol sartu ditu txapelketan; gol bat gainera, Athletic-en aurkako finalean sartu zuen. Nazioarteko Txapelketa honetan Estatuko eta atzerriko 8 talde aritu dira 2 taldetan banatuta. Erre-



*Bi gol sartu ditu Zuhaitzek txapelketan. Horietako bat finale*

alako Osasunari 2 eta 0 irabazi zion eta 3 eta 0 Moskuko Dinamori. Real Madril-en aurkako partidua, berriz, golik sartu gabe amaitu zen. Multzoko sailkapenean bi taldeok puntu berdina zituztenez, sartutako gol kopuruak eman ziren donostiarrei finala jokatzeko aukera. Zuhaitzek aipatu digunez, "finala irabazteko ilusio handixa zakagun, Ligako partiduetatik-eta oso ondo ezagutzen baikenitxun Athletic-ekuak eta irabazteko gogo handixa geneukan. Partidu gogorra jokatu ostian, penaltixetara ailegau ginan eta zoritxarrez suertia ez gendun gure alde izan".

## Garaipenak eskuetatik ihes egin zien Mintnallo ijounfalkalariei Zestoako Dasterlaan

Aitor Arriclagak, Iker Arrilagak, Dorleta Aranberrik eta Nerea Zubiaurrek hartu zuten parte



**M**intxeta Atletismo Taldeko korrikalariak postu oso onak lortu zituzten Zestoako lasterketan duela pare bat aste. Aitor Arrilagak bigarren postua lortu zuen alebin mailan eta Iker Arrilagak, berriz, ez zuen dominarik irabazi baina lasterketa aipagarria egin zuen infantiletan. Nesken alebin mailari dagokionez,

Dorleta Aranberri eta Nerea Zubiaurre 2. eta 3. postuetan heldu ziren helmugara hurrenez hurren. Lasterketaren ostean, garaikurrak eskuan dituztela, Zestoako plazan ateratakoa argazkian ikus ditzakegu lasterkari gazteak. Beraiekin batera Pedro Cerdaba eta Daniel Rino entrenatzaileak daude.

## EMAITZAK

### Futbola

**Haundi 1-** Burgos 2  
**Binelar 4 - Haundi 1**  
 Elgoibar 1- Tolosaldea 1 (1. erreg.)  
 Elgoibar 1- Getxo 1 (L.N. jub.)  
 Elgoibar 0- Beraun 1 (1. jub.)  
 Elgoibar 4 - Beti-Gazte 3 (Kad.)  
 Elgoibar 1 - Koskas 1 (Kad.)  
 Elgoibar 1 - Reat Union 3 (Inf.)  
 Elgoibar 1 - Dumboa 2 (Nesk.)  
 Pedrusko 7 - Amaika Bat 0 (2. erreg.)

### Futbitoa

Los Herminios 9 - Berrogei Duro 1  
 P.S.K. 9 - Kunta Kinte 3  
 Los Periaskos 3- Lojantzi 3

### Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNOtko jokalaria erregularrena 98/99  
 JOKALARIA ..... PUNTUAK

1- Aitor Trebiño .....	32
2- Madina .....	29
3- Eneko .....	28
4- Ibon Muguza .....	28
5- Diaz .....	27
6- Txasio 25	
7- G. Lazarobaster .....	24
8- Iker Leonardo .....	22
9- Caro .....	20
10- Beitia .....	18
11- Gurrubnga .....	18
12- Elkorro .....	15
13- Igor .....	11
14- G. Leonardo .....	10
15- Loren .....	9
16- Portu .....	1

## GENDA

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 10  
 12:00 Elgoibar - Anaitasuna (L. N jub.)  
 17:00 Haundi - Bermeo  
 Igandea, 11  
 12:00 Elgoibar - Aretxabaleta (Kad.)

### Futbitoa, Kiroldegian

**Igandea, 11**  
 11:00 Lojantzi - Aizkorak Mendibil  
 12:00 Los Peñaskos - P.S.K.

### Eskubaloia, Kiroldegian

**Larunbata, 10**  
 17:00IMS Elg. - Zaraulz (Senior nes.)  
 18:30 IMH Elg. - Armen. Ordizia (Senior mul)

FAI

Olaso, 23 • 943 74 20 37

## "Zinea eta Emakumer zikloa araolatu dute Ongarrik, Haizeak eta Emakundek apirilerako

Bost emakumeren filmeak izango dira ikusgai Herriko Antzokian

**Z**inea eta emakumea izenburupean ziklo berezia antolatu dute Ongard Zine Klubak, Haizea Emakume Taldeak eta Emakundek. Elgoibarko Udalak lagunduta, apirilean ikusgai izango dira bost filme Herriko Antzokian gaueko 22:15ean hasita. Egunak ondokoak dira: hilak 15, hilak 22, hilak 23, hilak 28 eta 29. Filme bakoitzaren aurkezpena emakume batek egingo du eta ikusgai izango diren pelikulak hauek dira: Lehendabiziko egunean Isabel Coixet-en "A los que aman" maitasunari buruzko filmea, Arantxa Zugasti, Emakunde aldizkariko koordinatzaileak aurkeztua. Hurrengo astean Irati Elorrietak aurkeztuko duen "La Manzana" pelikula iraniarra emango dute. Emakumeak Iranen bizi duen egoeraren isla da. Frantziako "La vida soñada de los 'angeles" filmeak, 20 urteko bi emakume gazteren istorioa kontatzen du. Pelikula hau Emakundeko Heziketa arloko arduraduna den BeIdn Martinezek aurkeztuko du. Hilaren



"La manzana" filmeak sari ugari trabazi ditu.

28an, Emakume-taldeen hezitzailea den Eskarne Larrinagak "Limpieza en seco" aurkeztuko du. Senar-emazte burges baten bizitza erakusten duen pelikula da. Azkenik, hilaren 29an, Nerea Izpizua ELAko prentsa arduradunaren eskutik "En compañía de hombres" izango da ikusgai; matxismoaren atzaparretan eroritako emakume baten bizipenak dira filme honen oinarriak. Antolatzaileek herritarrek gonbidatu nahi dituzte apirileko ostegun eta ostiral gauetan emakumeek egindako zinea ikustera.



Anne Fontaine zuzendariarena da "Limpieza en seco" pelikula.

### APIRILEKO PELIKULAKI

Apirilak 15	A los que aman
Apirilak 22	La manzana
Apirilak 23	La vida soñada de los angeles
Apirilak 28	Limpieza en seco
Apirilak 29	En compañía de hombres

## Sobradtki antzerki taldeak Itay huevosi ana eskainiko du ostiralean, hilak 1<sup>gg</sup> Herriko Antzokian

**R**lazteizko Sobradtkin taldeak bere hirugarren antzezlanaren taularatu-ko du datorren ostiralean, hilak 16, gaueko 22:30ean Herriko Antzokian. *iNo hay huevos!* Mauro Entrialgo eta Eloi Beatoren komedia da eta umore garratza eta kritika soziala uztartzen ditu. Pertsonaia arraroak, elkarrizketa bitxiak, egoera bereziak eta bereziki umore txarra dira antzezlanaren osagai nagusiak. *Herminio y Miguelito* eta *30 millones de gilipollas* lanen ostean, hirugarren honekin komedia giroan egindako lanen trilogia amaituko du Sobradtkin taldeak. *iNo hay huevos!* obrak elkanen artean oso ezberdinak diren hiru pertsonaia ditu protagonista: "Manila", bere karre- ra profesionalean arazoak dituen mar-



Sexu arteko harremanak, monarkia, drogak eta fama aztertzen dituzte Sobradtkin taldekoek tonu umoretsuan.

golaria, Gorka Aginagaldek interpretatutako papera; Ion Gabellak "Clorita" pertsonaia antzeztuko du, denbora luze-

an langabezia dagoen gizona; eta "Paco" aseguru saltzailea, Iñaki Rodabalok antzeztua. Hiru hauekin batera bigarren mailako pertsonaia ugari agertuko dira eskenatokian. Eszenaz eszena gai ugari aztertuko dituzte, besteak beste, kultura ofiziala, sexu arteko haffemana, monarkia, drogak eta fama. Jende orori zuzenduta badago ere, gazteengan arreta berezia jarri dute Sobradtkin antzerki taldekoek, izan ere, gazteek askotan ez dituzte beraien neun ira egindako antzezlanak aurkitzen. Artista baten estudioa gogorarazten duen dekoratu batean Gorkak, Jonek eta Iñakik ikusleak barrezka jarri nahi dituzte *iNo hay huevos!* obrarekin.



# Xabier Alberdi

## ARGIA ERLIJO TALDEKO KIDEA

*Xabier Alberdi elgoibartarra da eta 23 urte ditu. Duela 3 urte sartu zen 'Argia' erlijio taldean eta gaur egun ere bertako kideekin biltzen da asteartero.*

*Gazteen artean erlijioa modako gaia ez den honetan, berarengana jo dugu bide hori zergatik aukeratu zuen jakiteko eta taldean egiten dutenaren berri izateko.*

**1 - Noiz sartu zinen Argia taldean?** - Aisialdi talde batean nengoen eta lagun batek *Argia* erlijio taldearen berri eman zidan. Duela hiru urte sartu nintzen *Argian* eta gaur egun ere taldean nago.

**2 - Zer egiten duzue taldean?** - Asteartero elkartzen gara eta abestu egiten dugu, gai askori buruz hitz egin, alabantzaz egin... Taldea Espiritu Santuan erroztzen da, beraz, garai hartan gertatu zena interpretatzen dugu. Biblia ikuspuntu ezberdin batetik ulertzen ahalegintzen gara. Pekatuan eta mendekuan oinarritzen iruditik aldentuz, ikuspegi zabalago batetik lantzen dugu gai hau.

**3 - Konbibentziak ere egiten dituzue.** - Bai. Gure taldea "Grupo de Renovación Carismática" delakoaren barruan dago eta elkarte honek mundu guztian ditu taldeak. Beraz, bi hilabetean behin eskualdeko bilerak egiten ditugu, probintziakoa urtean behin eta Espainiako talde guztiak ere bildu izan gara Madrilan. Batzar hauetan gure taldean egiten ditugun gauza berak lantzen ditugu, baina jende berriarekin.

**4 - Gazteak inplikatzeko al dira erlijio gaietan?** - Ez gehiegi. Erlijioa beti inposatutako zerbait izan da eta gazteei ez zaizkie gustatzen ezarritako gauzak. Hala ere, badaude zerbaiten bila dabiltzan gazte asko, izan ere, azken aldiaren sekten eta beste zenbait talde arraroren berri izan dugu. Ez dute erlijioan ezer garbirik ikusten eta beste bide batzuetatik jotzen dute. Dena den, gazteria sinestuna dela uste dut, zerbait larria gertatzen zaienean Jainkoarengana jotzen baitute.

**- Eta elizkoiak al dira?** - Sinestuna eta kristaua denak elizaren akatsak barkatu egin ohi ditu, baina ni ez naiz joko horretan eroriko, oso argi daukat eliza zer den. Nik jainkoarengana sinesten dut eta ez elizarengana. Gazte askok gauza bera pentsatzen duela iruditzen zait.

### "Elizan sekula egon den pertsonaiarik onena Ama Teresa Kafilluitakea da"

**6 - Zein da gehien miresten duzun pertsona?** - Elizan jende ona eta txarra dago. Nire ustez elizan sekula egon den pertsonaiarik onena Kalkutako Ama Teresa da. Ateoenak ere, emakume honek pobreen alde egindako lana aintzat hartu behar luke. Mundu honetan badago elizara joaten ez den jendea eta kristaua ere ez dena, baina pertsona miresgarriak dira. Uste dut Jainkoak pertsona horiei lagunduko diela.

**7 Aste Santuko elizkizunetara joateko ohiturarik ba al duzu?** - Aurten "Grupo de Renovación Carismática" antolatutako akanpadan egon naiz. Bi egun pasatu ditut Nafarroako, Santandergo, Bizkaiako, Arabako eta Gipuzkoako 300 gazterekin. Aste Santuko elizkizunek garrantzia galdu dute eta ohiturak asko aldatu dira: Bijilia esaterako. Garai batean haragi-uztea egiten zen. Haragia luxuzko jakia zen eta haragia jan ezin zutenekiko elkartasuna erakus teko eta aurreratutako dirua pobreei emateko egiten zen bijilia. Baina, gaur egun, haragiaren ordez legatza jaten da, beraz, helburua erabat ezberdina da. Gainera, gauzak norberak nahi dituelako egin behar dira eta ez tradizioak agintzen duelako.

**8 - Zer egin beharko litzateke gazteak erlijioarekiko interesa izan dezaten?** - Giza-eskubideen errespetua gauza guztien gaineratik egon behar da. Beraz, gazte bakoitzak gauzak nahi duen ikuspuntutik begiratu ditu eta zerbait sentitzen duenak ez luke hori adierazteko beldurrik izan behar. Ezer sentitzen ez duenak, berriz, ez dauka kezkatu beharrik. Ni erlijio talde batean nago horrek betetzen naudelako eta laguntza aurkitu dudalako. Baina beste gazte batzuk mendiarekin konformatzen dira edo musikarekin. Elizak jendearen interesa eskuratu nahi badu, bere jarraitzaileekin konplitu behar du, eta denbora aurrera doan heinean, baita bere irudia berritu ere.



**INTERESEKO  
TELEFONOAK**

**OSASUNA**

**Anbulategia:**

Larrialdiak . . 943 461111  
Txanda hartzeko . 943 743354  
Planning-a ..... 943 742950  
Alkoholiko Anonimoak 943740385  
D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622  
Gurutze Gorria . 943 743864  
Mendaroko Ospitalea . 943 032800  
Odol Emailak ... 943 743936

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak .. 943 740442  
PESA (Eibar) .. 902 10 12 10  
Taxi geltokia .... 943 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua... 943 744366  
Udal Kiral Patronatua.. 943 744415  
Kultura Zerbitzua. 943 742158  
Mendaroko Udala... 943 756100  
Ongizate zerbitzua .. 943741008  
Udaletxea ..... 943 741050  
Udaltzaingoa ..... 943 741394

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra ... 943 741626  
Kiroldegia ..... 943 744415  
Kontsumo Bulegoa ... 943 743088  
Liburutegia ..... 943 743525  
Musika Eskola .. 943 742145  
M intxeta ..... 943 744315  
Parrokia ..... 943 740842  
Postetxea ..... 943 741547  
Gaztetxea ..... 943 743572

**ADINEKOEN ETXEA**

San Lazaro Egoitza.. 943 740296  
Zaharren Biltokia ... 943 740526

**IKASTETXEA**

Haur Eskola .. 943 74 21 41  
HHI (EPA) ... 943 74 08 80  
Herri Eskola .. 943 74 08 79  
L.M.H. .... 943 74 41 32  
Herri Institutua  
Arreiturre ..... 943 74 02 67  
Ezenarro (Meka).. 943 74 44 80  
Ikastola ..... 943 74 44 41  
Pilar Ikastetxea... 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN ..... 943 74 41 12  
El Diario Vasco 943 74 40 73  
El Correo Espariol. 943 74 10 82  
Egin ..... 943 10 84 21  
Zazpiki irratia 943 74 34 74

**9  
ostirala**

**19:00 MARGO  
ERAKUSKETA**

Egilea: Etery Prieto  
Kultur Etxean  
Apirilaren 23ra arte

**22:15 ZINE KLUBA**

"Velvet Goldmine"

**larunata**

**12:00 ZAZPIKI  
IRRATIKO BATZARRA**  
Ganbaran

**16:00 BILBOKO  
MANIFESTAZIORA  
JOATEKO AUTOBUSA**

Irteera Plaza Handian  
Antolatzailea:  
Elgoibarko HB

**19:30 ZINEA**  
"Bichos"

**22:15 ZINEA**  
"Celebrity"

**11  
gandea**

**16:30 ZINEA**  
"Bichos"

**19:30-22:15 ZINEA**  
"Celebrity"

**12  
astelehena**

12:00 KONTZENTRAZIOA  
Plaza Handian  
Antolatzaileak:  
Lizarra-Garazi akordioaren  
sinatzaileak.

**22:15 ZINEA**  
"Celebrity"

**15  
osteguna**

22:15 ZINE KLUBA  
"A los que aman"  
Aurkezlea:  
Arantxa Zugasti,  
EMAKUNDE aldizkariko  
koordinatzailea  
Antolatzaileak: Ongarri  
Zine Kluba, Haizea E. T.  
eta EMAKUNDE

**16  
ostirala**

**22:30 KULTUR  
ERROTA**  
Partehartzaileak:  
*Tabu Tabar* rock taldea,  
*Petti* bakarlaria  
eta *Ander Lipus* antzezlea  
Gaztetxean  
Antolatzaileak:  
Elgoibarko Izan'a,  
Gazte Asanblada eta  
Euskara Elkarteon  
Topagunea

**22:30 ANTZERKIA**  
Antzezlanak:  
"No hay huevos"  
Antzeztaldea: *Sobrathin*  
Herriko Antzokian

..... R ..... MI ZI ..... 1111 ..... IR ■ 1111 .....

**11  
NE  
A**



**Celebrity**

Ospea garrantzirik gabeko gauzengatik lortu duten zenbait pertsonen istorioak kontatzen dizkigu Woody Allen zinegileak bere ohiko estiloan. Komunikabideek duten ahalmen izugarriari esker edonor izan daiteke ospetsua ezer berezirik egin gabe. Besteak beste, beti hanka sartzen duen eguraldi gizonaren istorioa kontatzen digu. Ospea kapritxosoa eta surrealista dela esaten digu Woody paregabeak zuri-beltzean egi ndako fi l mean.

Zuzendaria: Woody Allen.  
Antzezleak: Kenneth Branagh,  
Melanie Griffith, Famke Janssen.

..... 111 ..... 111 .....



• **Musika eta antzerkia**  
**Gaztetuan**  
**Kultur Errotaren**  
**7. emanaldian**

Kultur Errotaren 7. emanaldian *Tabu Tabar* Lasarteko rock taldea eta Berako *Petti* kantari bakarlaria arduratuko dira musika arloaz. *Ander Lipus* antzezle markitarrak, berriz, *'Ardoagaz'* monologoa antzeztuko du ostira leart, hilak 16. Elgoibarko Iz arrak, Gazte Asanbladak eta Euskara Elkarteen Topaguneak elkarlanean antolatutako saioa Gazte-txean izango da. Gaueko 22:30ean hasiko da eta sarrera doan izango da.

• **Etery Prietoren margo eta artisautza erakusketa inaguratuko dute, gaur, hilak 9**

Gaur, hilak 9, iluntzeko 19:00etan inaguratuko dute Etery Prieto artista eibartarraren margo eta artisautza erakusketa. Damaskinatuak lantzen 14 urte zituenean hasi zen. Margotzeko teknika zail honetan lortu duen jakituria aparta ikusteko aukera izango dute Kultur Etxeko erakusketa gelara hurbiltzen direnek. Erakusketa apirilaren 23ra arte egongo da zabalik. Ordutegia ondokoa izango da: astelehenetik igandera bitartean arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara.



**121 4111 Z**

**FARMAZIAK**

Egunez Gauez

**10 Etxeberria Etxeberria**  
(Errosario kalean)

**11 Etxeberria Etxeberria**  
(Errosario kalean)

**12 Escala Escala**

**13 Bidasolo Bidasolo**

**14 Etxeberria Etxeberria**  
(Errosario kalean)

**15 Anduaga Anduaga**

**16 Yudego Yudego**

**ESCALA: Rekalde, 1**

Soraluze. Tel: 943 75 16 38

**ANDUAGA: Mendarozabal, 1**

Garagarza. Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA: Kaiebarren, 9**

Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OK1NDEG1A**

11 igandea Zabaleta

111 111 11 M INIII MEMENNINIM

**ONGARRI**  
zine kluba

**Zuzendaria: Isabel Coixet.**  
**Antzezleak: Patxi Freytez,**  
**Julio Nuñez, Ofalla Moreno.**

**A los que aman**

Maitasunaren inguruko gogoeta egiten du filme honek, maitasuna adierazteko zailtasunak dituzten pertsoez hitz egiten du. Kontatzen duen istorioan maixu batek Matilde maite du, baina Matildek Leon du gogoko eta Leon, berriz, Valeriaz dago maiteminduta. Armancia gazteak ere maixua desiratzen du, baina azken honek ez dio kasurik Elkar nahasten diren sentimenduen laberintu hau Ertaroan kokatzen da.

## Salerosketak

### ◆SALDU\*

- Musika aparailua salgai. Platoa eta bi pletina dauzka. 5.000 peze-ta. tze 943 74 23 89 (Maria Jesus)
- Akuario guztiz ekipatua salgai. 70-40-35 neurrikoa. ir 943 74 18 34
- Karabana abantzearekin salgai. Adria 3,5m.koa. 4 pertsonentzako. ir 943 74 07 85
- Gorriarentzako aparatua saltzen dut. 8 hilabeteko garantia du. tt 943 74 21 40
- 14"ko pantaila, 10X CD ROMA eta 53 txartel grafikoa salgai. Oso merke. tr 943 74 00 07
- Citroen ZX 1.8i salgai. Egoera onean. Interesatuek deitu 630 52 60 52 telefonora.
- Dynastar modeloko skiak saltzen dira. Altuera 1.85m. Nordica botak, zenbakia 42-43. ir 943 74 18 55
- Txalet modeloko kanpin denda handia saltzen dut. Egoera onean. Abantzea, egoteko lekua eta bi gela bikoitz ditu. •rr 943 20 68 48 (8:00-16:00) 943 74 05 14 (19:30etik aurrera).

## Etxebizitzak

- Errosario kalean etxebizitza salgai ganbarearekin. 3. pisua, Plazatik gertu. s 943 74 17 95
- axebizitza polita salgai. Altzariekin eta guztiz berriuta. Bernardo Ezenarro 1, okindegi gainean.z? 943 74 17 95
- Lokal bat alokatu nahi genuke. 20.000Opta. ordaintzeko prest gaude lokalaren arabera. tr 943 74 35 68 (Abraham).
- Ganbara bat alokatu nahi nuke. Gehienez 30.000pta. ordaintzeko prest nago. z. 943 20 01 01
- Pisua edo buhardila bat hartuko nuke alokairuan. ir 943 74 31 75
- Etxea saltzen da Santa Ana kalean. 2. pisua da, ganbara eta igogailuarekin. z 943 74 03 83 943 74 18 34
- Kanpora ematen duen pisua saltzen dut. Eguzkitsua. Lau logela, sukaldia, saloi-jangela, bi bainu-gela eta patio-trasteroa. Oso handia da. Urasandin. 12943 74 14 54 (guez, 22:00-00:00)
- Pisua saltzen da Mendaron. 76 m2 ditu. te 943 74 31 07

## Lana

### ◆ESKAINITZA\*

- Gaixo bat zaintzeko pertsona bat behar da; arratsalde 15:00etatik 21 :00etara. tt 656 71 97 82
- Emakumea behar da Donostian behin-behineko egoitza duen senar-emaztea zaintzeko. tt 943 74 13 92
- Emakumea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. ir 943 19 24 31
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. •r 943 74 20 32 (arratsaldeko 19:30etik aurrera)

### ◆ESKAERA\*

- Erizantzan diplomattitako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak edo edadetuak zaintzeko. Etxean edo eta ospitalean. Egunez nahiz gauetz. te 943 74 27 78
- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko. s 943 74 41 70
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. 10:00etatik 16:00etara. Cristiana. tr 943 74 08 81-74 07 07
- Esperientziadun emakumea eskaintzen da gaixoak zaintzeko. z 943 74 04 86 (Victoria edo Rosa)
- Etxea garbitu edo umeak zaintzeko emakumea eskaintzen da. s 943 74 34 06
- Agureak, gaixoak, etab. zaintzeko prest nago. Arratsalde edo gauetz. Esperientziarekin. a 630 20 97 31
- Neska eskaintzen da. Arduratsua eta esperientziarekin etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. tr 610 68 52 95
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. s 943 75 62 57
- Etxeko lanak egin edo lokalak, dendak eta portalak garbituko nituzke. Esperientzia eta informeak ditut. te 943 74 38 45 (Matilde. Erantzungailuan laga mezua)
- Ostalaritzan, umezaintzan eta garbiketan esperientziadun neska eskaintzen da. ze 943 74 22 03/943 74 07 07

**OHARRA:**  
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteaken eguerdita da.

## Bestelakoak

- Duela astebete Anayak lantegiaren parean pultsera gorridun einakumezko erlojua aurkitu nuen. Bere jabeak Udaltzainen bulegoan izango du.
- Bi logela alokatzen ditut Santa Klara 20-7C-an.s 943 74 24 06 (Mari Tere).
- Bi logela alokatzen ditut Urasandi kalean. tt 943 74 03 93 (19:30etik aurrera).
- Liburutegian "Contagio" liburua- ren barruan 2 argazki zahar eta bere negaliboak aurkitu ditugu. Argazkiak Lehen Jaunartzeoko dira. Jabeak Liburutegian izango dim argazkiak.
- San Migeleko frontoian gizonezko eriojua aurkitu dut.. te 943 74 21 40
- Narruzko guante marroiak galdu dilut.. tt. 943 74 04 63
- 1 Sukaldeko mahai biribila eta garbigailua saltzen ditut. Merke-merke,ts 943 74 22 20
- Taberna hartuko nuke errentan. is• 943 75 10 16 (Mertxe edo Jesus)
- Caritasek 2 kotxesila behar ditu. Baita jaioberriarentzat kapazoa edo otarra, butanozko estufa eta garbigailua. a 943 74 15 09
- 1 Jubilazioarengatik, martxan dagoen negozioa traspasatzen da Merkalu Plazan. Prezioa hitz egitekotan (aukera ona).12 943 74 02 27 Celsa

## Garajeak


- Leku E,derren garaje marraduna edo itxia alokatu nahi nuke. n 930 54 99 31
- Garajea saltzen da Urasandi 6an. Argi independentea. ir 943 74 08 63

## Agurrak


- Zorionak Itziar Juradori. apirilaren 2an urteak bete zituelako. Etxekoan partez. Espero dugu ondo pasako zenuela eguna.
- Zorionak Mireni, martxoaren 29an urteak bete zituelako. Bere iloba Leireren eta Oihanaren eta familia guztiaren partez.

- Zorionak Estitxu Irisarriri, apirilaren 2an 11 urte bete zituelako. Cristinaren partez.
- Zorionak Ines Segurari apirilaren 6an 16 urte bete zituelako. Bere lagunik onenaren partez.
- Zorionak Ainhoatxo, martxoaren 30ean 11 urte bete zenituelako. 5. mailakoan partez eta bereziki Pilarreko 5, mailako nesken partez.
- Zorionak Thigo Garairi, apirilaren 3an urteak bete zituelako. Unaien, Jonen, Koldoren eta Mikelen partez muxu handi bat.


1 Zorionak Ainhoari, hilaren 7an 6 urte bete zituelako. Familiaren eta bereziki lehengusu Iosuren partez. Zorionak baita ere amatna Begotiarri.



- Zorionak Juleni, martxoaren 29an 13 urte bete zituelako. Maitasunez gurasoen eta anaia Eriken partez.



- Zorionak Jokini, hilaren 10ean 7 urte bete dituelako. Bere anaia Aitorren eta aitaxorren eta amatxorren partez.



- Zorionak Ainhoa Zapatari, martxoaren 30ean urteak bete zituelako. Bere gurasoen eta anaia Ibanen eta Ikerren partez.



Kultur Errota



Kultur Errota



Kultur Errota




# GAZTETXEA

## Gaztetxean

apirilak 16,  
ostirala  
gaueko 22:30ean

## Petti

(Berako kantautorea)




## Tabu tabar

(Lasarteko rock taldea)

## Ander ~~35.000~~ Lipus

(Markinako antzezlea)



# .Doanti



TOPAGUNEA



Elgoibarko Udala

36.000

**SOBRADUN**-ek

AURKEZTEN DU:

.111 .1V 01-

**Mauro Entrialgo & Eloi Beato**

Antzezleak:

ION GABELLA  
GORKA AGINAGALDE  
eta  
IÑAKI RODABALLO

Zuzendaria:  
ELOI BEATO

1999



Kultura saila

**HERRIKO ANTZOKIAN**

Apirilak 16, ostirala

Gaueko 22:30ean